

# Egoeraren Azkerketa



*Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa*

**87.500 enplegu suntsituta  
azken bi urteetan**

**INEMeko pertsonen %32ak  
ez du inolako saririk jasotzen**

**Kontratuen %91,9ak behin-  
behinekoa izaten jarraitzen du**

**Luxenburgok soilik dauka  
gastu publiko baxuagoa**

**Ibex 35eko enpresen mozkina  
%19,9 igo da lehen hiruhilekoan**

# Hego Euskal Herriko (\*) lan eta ekonomi egoeraren adierazleak

ADIERAZLEA	ERREFERENTZI ALDIA		12 HILE LEHENAGO
<b>ENPLEGUA ETA LANGABEZIA</b>			
JARDUERA TASA (%)	73,5	2010.ko I. HIRUILEKOA	73,6
JARDUERA TASA 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	71	2009.eko IV HIRUILEKOA	71,1
LANEAN DAGOEN BIZTANLERIA	1.190.000	2010.ko I. HIRUILEKOA	1.211.400
SOLDATAKO BIZTANLERIA	1.000.300	2010.ko I. HIRUILEKOA	1.013.200
ALDI BATERAKO TASA (%)	22	2010.ko I. HIRUILEKOA	22,2
ALDI BATERAKO TASA 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	13,5	2009.eko IV HIRUILEKOA	13,8
BIZTANLERIA LANGABETUA	151.500	2010.ko I. HIRUILEKOA	140.300
LANGABEZI TASA (%)	11,3	2010.ko I. HIRUILEKOA	10,4
LANGABEZI TASA 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	9,4	2009.eko IV HIRUILEKOA	8,3
GAZTEEN LANGABEZI TASA (%)	30	2010.ko I. HIRUILEKOA	29,3
GAZTEEN LANGABEZI TASA 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	20,3	2009.eko IV HIRUILEKOA	18,3
EMAKUMEEN LANGABEZI TASA (%)	11,5	2010.ko I. HIRUILEKOA	11
EMAKUMEEN LANGABEZI TASA 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	9,2	2009.eko IV HIRUILEKOA	8,3
SINATURIKO KONTRATUAK	268.028	2010 URT.-MAI.	250.890
KONTRATATU MUGAGABEAK	21.715	2010 URT.-MAI.	24.318
<b>ENPLEGU ERREGULAZIOA</b>			
ONARTURIKO FITXAK	1.084	2010 URT.-API.	1.253
ERAGINDAKO LANGILEAK	19.135	2010 URT.-API.	44.284
<b>LAN ISTRIPUAK</b>			
ISTRIPUAK GUZTIRA	INFORMAZIO FALTA	2009.eko URT.-ABE.	134.305
HILDAKO PERTSONAK	INFORMAZIO FALTA	2009.eko URT.-ABE.	103
<b>ESKAINNTZA ETA ESKARIA</b>			
INDUSTRI PRODUKZIOA EAEn (%ALD.)	-2,1	2010.ko URT.-MAR.	-24,1
BPGd EAEn (%ALD.)	-0,6	2010.ko I. HIRUILEKOA	-2,8
BPGd NAFARROAN (%ALD.)	-0,1	2010.ko I. HIRUILEKOA	-2,1
BPGd ESPAINIAR ESTATUAN (%ALD.)	-1,3	2010.ko I. HIRUILEKOA	-3,3
BPGd 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%ALD.)	0,3	2010.ko I. HIRUILEKOA	-5
<b>PREZIOAK</b>			
URTEARTEKO KPIa ESPAINIAR ESTATUAN (% ALD.)	1,8	2010.ko MAIATZA	-0,1
URTEARTEKO KPIa 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%ALD.)	2	2010.eko APIRILA	1,4
<p>* Adierazleak Hego Euskal Herriari dagozkio. Bestelako kasuan lurraldea zehaztuko da.</p> <p>* Enplegu eta langabeziko datuak, 16 eta 65 urte bitarteko adin tarteari dagozkie. Bestela, adin tartea zehaztuko da.</p> <p>Iturriak: Eustat, Nafarroako Estatistika Erakundea, Eurostat, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Osalan, Instituto Navarro de Salud Laboral, Instituto Nacional de Empleo, Instituto Nacional de Estadística, ELAko Lan Osasun Alorra</p> <p>2010/03/30ean eguneraturiko informazioarekin</p>			



# Aurkibidea

<b>1. Hego Euskal Herrian 87.500 lanpostu suntsitu dira azken bi urteetan .....</b>	<b>4</b>
<b>2. Krisia kolektibo ahulenak ari da gogorren astintzen .....</b>	<b>6</b>
<b>3. Kolokako lana sortzen jarraitzen dute .....</b>	<b>8</b>
<b>4. Erregulazio-espeditentak onartzen jarraitzen dute .....</b>	<b>8</b>
<b>5. KPIaren gaineko soldata-igoeren alde .....</b>	<b>9</b>
<b>6. Barne Produktu Gordina erritmo motelagoan jaisten da .....</b>	<b>10</b>

## Puntako gaiak

<b>1. Europako azkenak, gastu publikoari dagokionez .....</b>	<b>11</b>
<b>2. Krisi betean, zuzendarien soldatek eta enpresen mozkinak markak hausten dituzte .....</b>	<b>12</b>

## ERABILITAKO SIGLAK

HEH	Hego Euskal Herria
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EB	Europako Batasuna
ELGE	Ekonomi, Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea
BPG	Barne Produktu Gordina
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea
BJA	Biztanleria Jardueraren Arabera
BAI	Biztanleria Aktiboaren Inkesta
PII	Produktzio Industrialaren indizea
JII	Jarduera Industrialaren Indizea
Eustat	Euskal Estatistika Institutua
INE	Instituto Nacional de Estadística
EIN	Estatistika Institutu Nazionala

# EGOERAREN

A Z T E R K E T A

## Sarrera

Egoeraren azterketa honetan, enpleguak Hego Euskal Herrian urteko lehenengo hiruhilekoan izan duen bilakaera eta ekonomiaren bilakaera jorratuko ditugu. Gizarte zein lan arloetako doikuntzak eta erreformak bereizgarri dituen abagune honetan, Europar Batasuneko gastu publikoaren maila aztertuko dugu puntako gaietan, bai eta Ibex 35 indizea osatzen duten enpresen mozkinak eta beraietako kontseilu-kideen ordainsariak ere.

\* Txosten hau 2010ko ekainaren 22an eguneraturiko informazioarekin burutua izan da

# Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa

Krisi ekonomikoa duela bi urte hasi zen. Gobernuak uko egin diote etorkizunean berriro gauza bera gertatzea eragozteko erabakiak hartzeari. Ildo horretan, oso esanguratsuak dira espekulazioari aurre egiteko manurik ez xedatzeko jarrera eta finantza-sistemak aldatzeko neurriak eza.

Krisiaren hasierako hilabeteetan, esku-hartze publiko garrantzitsu bat burutu zen. Herrialde industrializatuak gobernuak diru publiko asko erabili zuten, baina dirutza horren xedea ez zen enplegua sortzea edo herritarren ongizatea bermatzea izan, gehiena finantza-erakundeen eskura jarri zen eta.

Europar Batasunaren (EBren) Itunek murrizketa larriak ezarri dituzte finantza publikoetan. ELAk lehenengo unetik salatu zituen defizitari eta zor publikoari ezarritako mugak eta zenbait gai garrantzitsuren inguruan, presio fiskala edo gizarte-gastua kasu, dagoen harmonizaziorik eza. Hori da, hain zuzen ere, EB Eratzeko Ituna deiturikoaren kontrako jarrera harrarazi ziguten arrazoietakoa bat. Izan ere, erabaki horiek guztiak dira aurrekontu-politika antisozialen oinarria.

Une honetan, oraingo ereduaren ondorio tamalgarrien lekuko gara. Krisiaren hasierako hilabeteetan aplikatutako esku-hartze publikoaren ondorioz sortu den defizit publikoak alde handiz gainditu du konbergentzia-irizpideetan zehaztutako muga. Defizit publikoko egoera hori, aurrerago ikusiko dugunez, krisi ekonomikoan murgildurik jarraitzen dugularik jazo da.

Bada, une honetan, Europan, kolore politiko guztietako gobernuak gastu publikoa murrizteko garaia dela erabaki dute, defizita BPGd-aren %3ra eta zor publikoa BPGd-aren %60ra mugatzeko irizpide zentzugabeak betetzearren, gobernuak neurriak exijitzen dizkien botere ekonomiko eta finantzarioa pozik egon dadin. Era horretan, Europar Batasuneko estatuetan egiturazko doikuntzarako taxutzen diren planen bidez, gastu publikoa murriztea sustatzen ari da nagusiki, eta horren eragin nagusia gizarte-gastuan eta enplegu

publikoan (soldatetan eta enplegu-bolumenean) islatzen da.


Honako arrazoi hauengatik deritzegu onartezin politika horiei:

- Krisiaren errurik ez duten sektoreei ordainarazten dizkiete krisiaren ondorioak, eta finantzez eta espekulazioaz aberastutako sektoreari, ezein baldintzarik ez araurik ez ezartzeaz gain, itzelezko dirutzak eman zaizkio; horrexek eragin du oraingo defizit publiko itzela.
- Atzeraldia larriagotu egiten duten politikak dira, langabezia areagotu eta herritarrentzako gizarte-babesa murriztu egiten baitute. Politika horiek amildegi ekonomikora garamatzate eta oso ondorio kaltegarriak ekarriko dizkiete biztanleriaren gehiengoari.
- Aginte politikoak otzan ageri dira botere ekonomiko eta finantzarioarekiko. Horrela, galbidera eraman dute demokrazia, politikaren berezko zereginak alderantzizkoa izan beharko bailuke: biztanle gehienek interesak gutxiengo boteretsuari (diruari dagokionez) inposatzea, alegia. Gobernuak, sistema finantzario eta espekulatuzailearen oinarriak aldatu beharrean, beti gehiago exijitzen duen botere ekonomiko asezinari men eginez nahi dituzte minimizatu ondorioak.

Gauzak horrela, gogoan izan behar dugu enpleguaren oraingo egoera zinez kezagarria dela, eta areago larrituko dela Espainiako Gobernuak, Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak onartu dituzten murrizketen eraginez.

## **1. Hego Euskal Herrian 87.500 lanpostu suntsitu dira azken bi urteetan**

Enpleguan, krisiaren ondorioak 2008ko lehenengo hilabeteetan hasi ziren nabarmentzen. 2010eko lehenengo hiruhilekoan egoera pixka bat




hobetu bada ere, azken bi urteetako bilakaera benetan kezkarria da.

Hego Euskal Herrian, 2010eko lehenengo hiruhilekoan, 1.197.400 biztanle aritu dira lanean, 2009ko azken hiruhilekoan baino 7.700 lagun gehiago, alegia. 2008ko lehenengo hiruhilekotik hona suntsitutako lanpostuak, ordea, 87.500 izan dira. Hau da, duela 2 urte zeuden lanpostuen %6,8 galdu da.

Nafarroan, 268.700 pertsona aritu dira lanean aurtengo lehenengo hiruhilekoan, hots, 2009ko azken hiruhilekoan (272.100) baino 3.400 gutxiago, eta duela bi urte baino 22.600 lagun gutxiago. Datuok erakusten dutenez, lanean dabilen biztanleriak %7,6ko gutxipena izan du bi urteko tarte horretan.

EAEen, 2010eko lehenengo hiruhilekoan lanean aritu diren pertsonak 928.700 izan dira, hau da, aurreko hiruhilekoan (917.500) baino 11.200 gehiago, eta 2008ko epealdi berean baino 64.900 gutxiago; hots, orain bi urte baino %6,6 gutxiago.

### Lanean dabilen biztanleriaren bilakaera (milaka pertsona). HEH, Nafarroa, EAE. 2008-I - 2010-I




Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (INE)

Krisia hasi zenetik, sektore ia guztietan suntsitu dira lanpostuak. Zerbitzuen sektorea da 2010eko lehenengo hiruhilekoan lehengoaren antzeko lanpostu-kopurua duen bakarra, 802.600 langilerekin. Lehen sektorean, 24.500 langile aritu

dira; industrian, 280.400, eta eraikuntzan, berriz, 90.000.

Enpleguak sektore bakoitzean izan duen bilakaera aztertzean ikusten denez, azken bi urteetan, eraikuntza izan da sektorerik zigortuena, lanpostuen %30,4 galdu baita: 39.300 lanpostu, zehazki. Lehen sektorean, bost lanpostutik bat suntsitu da (%20,5), 6.500, hain zuzen. Hala eta guztiz ere, lanpostu gehien suntsitu duen sektorea industria izan da, beraren enplegu-bolumenaren gutxipena 42.300 lanpostukoa izan baita; hots, 2008ko lehenengo hiruhilekoan baino %13,1 txikiagoa izan da enplegu-bolumena. Zerbitzuen sektorean, duela bi urte baino 400 lagun gehiago dabilta lanean.

### Enpleguaren bilakaera sektorez sektore (milaka pertsona). HEH. 2008-I - 2010-I



Iturria: INE

Jarduera-tasa %73,5ekoa izan da 2010eko lehenengo hiruhilekoan, hau da, 2009ko azken hiruhilekokoaren berdina, eta orain dela bi urtekoaren (%73,4) oso antzekoa.

27-EBko jarduera-tasa, bestalde, %71,0koa izan da 2009ko laugarren hiruhilekoan (argitara emandako azken datua da), urtebete lehenago baino 0,1 puntu baxuagoa.

Generoari erreparatuta, emakumeen jarduera-tasa %66,3koa izan da, hau da, 2009ko azken hiruhilekoko baino %0,7 txikiagoa eta 2008ko


lehenengo hiruhilekkoa baino 0,2 puntu gutxiagokoa.

Gizonezkoen jarduera-tasa, berriz, %80,6koa izan da; beraz, %0,6 igo da aurreko hiruhilekoaren aldean, baina 1,7 puntu jaitsi (%82,3tik), 2008aren hasierako tasarekin erkatuz gero.

Soldatako langileak 1.003.500 izan dira 2010eko lehenengo hilabeteetan: aurreko hiruhilekoan (992.300) baino 11.200 gehiago, alegia.

Dena den, 2008aren hasieratik hona, soldatakoen kopurua 35.300 lagunetan urritu da.

### Soldatakoen bilakaera, generoa kontuan hartuta. (milaka pertsona). HEH. 2008 I - 2010 I



Iturria: INE

Generoaren arabera bereizirik, gizonak soldatakoen %53,4 dira, eta emakumeak, gainerako %46,6a. Soldatako lanpostuetan, gizonen presentzia handiagoa urrituz joan da, eta, ondorioz, soldatako emakumeekiko diferentzia txikiagoa da orain. Izan ere, lanpostu gehiago suntsitu dira gizonezkoen artean, emakumezkoen artean baino.

### Soldatako langileak, generoa kontuan hartuta. HEH. 2008-I - 2010-I

	2008-I	2009-I	2010-I
Gizonak	%54,3	%53,7	%53,4
Emakumeak	%45,7	%46,3	%46,6
Guztira	1.038,8	1.016,4	1.003,5

Iturria: INE

## 2. Krisia kolektibo ahulenak ari da gogorren astintzen


Langabezia dauden biztanleen kopurua 3.800 lagunetan urritu da 2009ko azken hiruhilekotik hona. Langabeak, zehazki, 151.500 dira, horietatik gizonezkoak 82.100 (aurreko hiruhilekoan baino 1.900 gehiago) eta emakumezkoak 69.400 (5.700 gutxiago) direlarik.

Langabeen kopurua krisia hasi baino lehenagokoarekin alderatuz gero, 2008ko lehenengo hiruhilekotik ia bikoiztu egin dela ikusten dugu, 77.900etik 151.500 lagun izatera (73.600 gehiago) igaro dira eta.


Hego Euskal Herriko langabezia-tasa orokorra %11,3koa izan da 2010eko lehenengo hiruhilekoan, hots, duela urtebete baino %0,9 altuagoa, eta 2008ko lehenengo hiruhilekokoan (%5,6koa) halako bi ia.

Kolektibo behartsuenen langabezia-tasen bilakaerak argi islatzen du gizarte-desorekak krisialdian areagotu egiten direla. Krisia hasi aurretik, 25 urtetik beherako gazteen langabezia-tasa oso altua zelarik ere (%15,8), %30,0an dago orain. Hau da: gazteriaren ia heren bat dago langabezian.

Generoaren arabera bereiziz gero, emakumezkoen langabezia-tasak (%11,5) tasa orokorraren gainetik jarraitzen du, nahiz eta, azken urtean, orokorra emakumezkoena baino gehiago igo den. Gizonen langabezia-tasa (%11,1), aitzitik, orokorraren azpitik dago, azken aldian orokorra baino gehiago igo den arren.



### Langabezia tasaren bilakaera (%). HEH. 2008-I - 2010-I




Iturria: INE

Bertoko egoera 27-EBkoarekin alderatzeko dauzkagun azken datuak 2009ko laugarren hiruhilekokoak dira. Horien arabera, HEHko langabezia-tasa orokorra %11,5ekoa den bitartean, Europako batez bestekoa bi puntu baxuagoa da: %9,4koa, hain juxtu.

Aldea are handiagoa da kolektiborik prekari-zatuenentzat. HEHko emakumeen langabezia-tasa %12,3koa da, Europako %9,2aren aldean. Edonola ere, jauzirik handiena 25 urtetik beherako pertsonen kolektiboan ageri da, horien langabezia-tasa %34,0koa baita HEHn, European %20,3koa delarik.

### Langabezia tasa (%). HEH, 27-EB. 2009-IV



Iturriak: INE, Eurostat


Europar inguruko langabezia-tasak aztertzean, HEH bosgarren tokian azaltzen da (%11,5eko tasarekin, 2009ko laugarren hiruhilekokoan), 27 kideko Europar Batasuneko batez bestekoa baino 0,1 puntu gorago.

Langabezia-tasarik altuena duen estatua Espainiakoa da (%24,1), Irlandakoa baino 8 puntu gorago eta Europako batez bestekoaren gainetik 12,7 puntura dagoela. Langabezia-tasarik txikiak dituzten herrialdeak Holanda (%5,7), Erresuma Batua (%6,3) eta Austria (%7,0) dira.

2008ko lehenengo hiruhilekotik honako bilakaerari dagokionez, HEH hirugarren tokian azaltzen da, 2009ko laugarren hiruhilekora bitarte 5,9 puntu gora eginik. 27 kideko Europar Batasunean, aldiz, langabezia-tasaren batez besteko gehikuntza 3,1 puntukoa izan zen.

HEHko langabezia-tasarena baino gehikuntza handiagoa izan zuten estatuak Espainiakoa eta Irlandakoa izan ziren, euren tasak, hurrenez hurren, 10,7 eta 10 puntu igo ostean. Alemaniako tasak, ostera, 0,2 puntu egin du behera epealdi berean, eta Holandak ia eutsi dio lehenagoko tasari, 0,1 puntuko gehikuntza izan baitu. Aztertutako gainontzeko estatueta langabezia-tasak 1 eta 3,1 puntu bitarte igo dira.

## Langabezia tasa, estatuz estatu (%) 2008 - 2009. 27-EB




Iturria: Eustat

2010eko maiatzean, HEHn, 171.344 lagun zeuden Enpleguko Institutu Nazionalan (INEMen) inskribaturik. Apirilarekin alderatuta, 5.328 laguneko gutxipena egon da.

Dena dela, 2009ko maiatzean baino 14.768 pertsona gehiago, 2008ko maiatzean baino 69.046 gehiago eta 2007ko maiatzean baino 79.599 gehiago daude langabeen zerrendan izena emanda. Hortaz, 2007tik hona, langabeziak %46,5 egin du gora.

## Langabeziaren bilakaera (pertsona kopurua). HEH. 2007 maiatza-2010 maiatza



Iturria: Enpleguko Institutu Nazionala (INEM)

Gainera, inskribaturik dauden pertsonen %32,4k ez du langabezia-prestaziorik jasotzen, ez kotizaziopekorik, ez kotizazio gabekorik. Langabeen %40,1ek kotizaziopeko prestazioa kobratzen du, eta gainerako %27,5ak, berriz, kotizazio gabeko prestazioa. Beraz, Lan Zerbitzu Publikoetan langabetzat hartzen diren biztanleen %59,1 edo prestaziorik gabe dago, edo oso diru-kopuru txikiak jasotzen ari da. Krisiak aurrera egin ahala, babes-gabeziaren maila hazi egingo da.

## 3. Kolokako lana sortzen jarraitzen dute

Enpleguaren eredia aldatu eta kalitatea hobetu beharrean, 2010eko urtarriletik maiatzera sinatu diren kontratuen %91,9 aldi baterakoak izan dira. Zehazki, sinatutako 268.028 kontratuetatik, 246.313 aldi baterakoak izan dira.

Datuok lurraldez lurralde aztertuta ikusten denez, Nafarroan sortzen den enpleguaren eta EAEn sortzen denaren artean, ez dago inolako alderik. Sortzen den enplegu ia guztia aldi baterakoa izatea eragiten duten politikak berdintsuak dira bi lurraldeetan.

### Sinatutako kontratuak. 2010eko urtarriletik maiatzera


	Guztira	Aldi baterakoak	%
Nafarroa	64.348	59.182	%92,0
EAE	203.680	187.131	%91,9
HEH	268.028	246.313	%91,9

Iturria: INEM

## 4. Erregulazio-espeditentek onartzen jarraitzen dute

Enplegua erregulatzeko espeditentek HEHko langileengan duten eragina oso handia da oraindik ere. 2010eko urtarriletik apirilera bitartean, 1.084 espeditente onartu dira HEHn (890 EAEn eta 194 Nafarroan). Datuok iazko epealdi berekoekin erkatuta, 169 espeditente gutxiago






onartu direla ikusten dugu (1.253 onartu dira, 962 EAEn eta 291 Nafarroan).

Espedienteen kopuruak 2009aren hasieratik hona izan duen bilakaerari erreparatzean ikusten dugunez, batez beste 287,3 espediente onartu dira hilero. Lurralde lurralde begiratuta, Nafarroan batez beste onartutako espedienteak 56,9 izan dira, eta EAEn onartutakoak, 230,3.

### Enplegu erregulazioko espedienteak. Nafarroa, eae. 2009 urtarrila-2010 apirila.



Iturria: Lan eta Immigrazio Ministerioa

Apirilean zehar, 3.283 langilek nozitu dute enplegu-erregulazioko espedienteen eragina, eta aurtengotik iragan den aldiari, 19.135ek. Azken datu hori 2009ko epealdi berekoarekin alderatzean ikusten denez, espedienteek eragindako langileen kopurua erdia baino gehiago urritu da (iazko lehenengo lau hilabeteetan 44.284 langile izanik).

Hilez hileko bilakaerak erakusten duenez, HEHn, hilero, batez beste 7.846 lagun hasten dira espedienteen ondorioak jasaten.

Enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpean suertatu diren 19.135 pertsonetatik 17.959 etendura-neurriak zekartzaten espedienteetan zeuden; beste 994 langile, kontratua desegiteko espedienteetan, eta beste 182, lanaldia murritzekoetan.

## 5. KPIaren gaineko soldata-igoeren alde


Estatuko KPIak 1,8 puntuko urte-arteko aldakuntza-tasaz itxi du maitatza. 27 kideko Europar Batasunean, bestalde, tasa %2,0koa izan da apirilean.

KPIak 2009ko lehenengo hilabeteetatik hona izandako bilakaerak agertzen duenaren arabera, Europako KPI tasak nahiko bilakaera leuna darama, hau da, ez du gorabehera handirik erakusten.

Estatuko KPIa, ostera, ondoz ondoko 8 hilabeteetan (2009ko martxotik azarora) indize negatibotan ibili ondoren, gero eta balio altuagoak hasi da agertzen.

Hain zuzen, KPIaren aldakuntza biziongatik du horrenbesteko garrantzia KPIaren gaineko eta aurreko urteko KPIaren erreferentziazko soldata igoerak erdiesteak. Horrelako igoerak lortuz baino ezin izango dugu ziurtatu gure soldatak ekonomiaren gorabeherari buruz erosahaltenik ez galtzea.

### KPIaren bilakaera 2009tik aurrera. 27-EB - Estatua



Iturria: INE, Eurostat


## 6. Barne Produktu Gordina erritmo motelagoan jaisten da

BPGd-ak, bestalde, bilakaera negatiboa izan du, bai Nafarroan, bai EAEn, 2010eko lehenengo hiruhilekoan. Nafarroari dagokionez, %0,1 urritu da iazko BPGd-arekiko, eta BPGd-aren gutxipena jazo deneko hurrenez hurreneko bosgarren hiruhilekoa izan da. EAEn, diferentzia are handiagoa da, BPGd-a %0,6 jaitsi baita urtebetean, kasu horretan ere bilakaera negatiboa izan duen ondoz ondoko bosgarren hiruhilekoa izanik.


Espainiako Estatuko BPGd-aren bilakaera ere negatiboa izan da, eta gutxipena are handiagoa. 2010eko lehenengo hiruhilekoan, zehazki, Estatuko barne-produktu gordina urtebete lehenagokoa baino %3,3 urriagoa da, eta negatiboan igaro den ondoz ondoko seigarren hiruhilekoa izan da.

Edonola ere, 27-EBk %0,5eko gehikuntza izan du 2010aren hasierako hiru hilabeteetan, iazko epealdi berari buruz. Europan, duela jada sei hiruhileko hasi zen BPGd-a urte-arteko tasa negatiboak agertzen, baina balio positiboetara itzultzen ere lehenengoa izan da, lehen hiruhileko honetako BPGd-a urtebete lehenagokoa baino handiagoa izan baitu.

### BPGd-aren urte arteko bilakaera (ald. %)EAE, Nafarroa, Espainiako estatua eta 27-EB



Iturria: Eustat, IEN, INE, Eurostat



1

## Europako azkenak, gastu publikoari dagokionez

Eurostatek Europar Batasuneko estatuen 2009ko kontu publikoen azterketa eman berri du argitara. Datuoi esker, estatu bakoitzeko gastu publikoaren maila besteetakoekin eratzeko aukera dugu.

Espainiako estatua Europako azkena da, gastu publikoari dagokionez, 2009an, bertako BPGd-aren %45,9 besteko gastua izan duelarik. 27 kideko Europar Batasunean, berriz, batez besteko gastu publikoa BPGd-aren %50,70ekoa da.

Berez, Luxemburgek baino ez du Espainiako Estatukoa baino gastu publiko txikiagoa. Gai-nontzeko estatuekiko gastu-diferentzia, gainera, nabarmena da, izan ere, bere aurretik duen herrialdeak, Irlandak, berak baino 2,5 puntu gehiagoko gastua baitu (BPGd-aren %48,4koa). Gastu publiko handiena duten herrialdeak Danimarka eta Alemania dira (BPGd-aren %58,6 beste gatatzen dute).

Bilakaerari dagokionez, Espainiako estatuko gastu publikoa, 2007tik 2009ra artean, 6,7 puntu handitu da BPGd-ari buruz. Aldi horrexetan, 27 kideko Europar Batasuneko gastu publikoak 6 puntuko gehikuntza izan du.

### Europar Batasuneko gastu publikoa. (BPGd %). 2009

Gastu publikoa	
Danimarka	58,6
Alemania	58,6
Suedia	56,5
Frantzia	55,6
Finlandia	55,6
Holanda	54,6
Belgika	54,2
Italia	51,9
Austria	51,8

Erresuma Batua	51,7
Portugal	51,0
Europar Batasuna	50,7
Grezia	50,4
Eslovenia	49,9
Hungaria	49,8
Irlanda	48,4
Espainia	45,9
Luxemburg	42,4

Iturria: Eurostat

Defizit handieneko herrialdeak Irlanda (BPGd-aren %14,3), Grezia (%13,6), Erresuma Batua (%11,5) eta Espainiako Estatua (%11,2) dira. 27 kideko Europako batez besteko defizita %6,8koa da. Espainiako estatuko defizit publikoaren maila Europako batez bestekoa baino altuagoa da, baina horren arrazoa ez da gastu publiko handiagoa izatea, zerga-bilketa askoz txikiagoa izatea baizik.

Beraz, logikari jarraituz ondorioztatzen denez, defizita urritzeko, diru-sarrerak ugaritu egin behar dira. Gaur egun hartzen ari diren erabaki politikoek kontrako noranzkoan jotzen dute. Gastu publikoa gainerako herrialdeetako baino askoz txikiagoa delarik ere, areago murriztea da gobernuak, defizita gutxitzekotan, egiten ari den apustua. Hartzen ari diren neurrien eraginez, administrazioaren pisua gero eta txikiagoa da, eta sektore pribatuarena, gero eta handiagoa, herritarrentzako babes-gabezia bezalakoxea, hain zuzen.

2

## Krisi betean, zuzendarien soldatek eta enpresen mozkinak markak hausten dituzte

Ibex 35eko enpresek 2010eko lehenengo hiruhilekoan izan dituzten emaitza ekonomikoek beraien mozkinak %19,9 handitu direla erakusten dute.

Sektore publikoan diharduten langileen soldatak murrizteko neurriak hartzen, pentsioak izozten, edo Egoeraren Azterketa honetan langabeziari eta estaldurari buruz agertu ditugun datuak jasotzen direlarik, Ibex 35eko enpresek 11.163,32 milioi euroko etekin garbia lortu dute aurtengo lehenengo hiruhilekoan, hau da, 2009an baino 1.853 milioi euro gehiago.

Ibex 35eko enpresetako kontseilari eta goi-zuzendarien soldatak ere ez dira atzean geratzen. 2009an, guztira, 577,438 milioi euro ordaindu zizkieten euren kontseilari eta goreneko zuzendariari, guztira 584 exekutibo izanik. Alegia, horietako bakoitzak, batez beste, ia milioi bat euroko mozkinak eskuratu zituen (989.000 euro).

Hurrengo taulan, ordainsarien guztizkoa, enpresa bakoitzeko exekutiboaren kopurua eta horietako bakoitzaren batez besteko ordainsaria azaltzen dira.

### **Ibex 35eko enpresetako exekutiboaren ordainsariak. (mila eurokotan). 2009**

Ordainsarien guztizkoa	Exekutiboaren kp.	Batez besteko ordainsaria
577.438	584	989

Iturria: El País